

Bermeo, 2016ko abenduaren 20a

Guraso agurgarriok:

Gabonetako oporrak ate-joka ditugula, hona hemen kontuan hartzeko ohar batzuk:

1.- **ABENDUAREN 23a: azken eskola eguna**

- Goizean zehar, ikasleentzako ekintzak egongo dira. Horretarako umeak **apropos jantzita** datozela eskatzen zaizue (atsotxu, arrantzale, agure...)
- Kontuan hartu ekintza horiek ikasleentzat baino ez direna eta, beraz, **gurasorik ezin dela sartu aretora.**
- Egun horretan, ikasleak bazkaldu eta gero joango dira etxera. Autobusen ordutegia honakoa izango da:

	HH 0-2	HH 3-4	HH 5 LH 1 - 2	LH 3-4-5-6	DBH 1-2-3-4
Ikastolatik	12:40: Bizkaiko-San Juan 12:55: Zubiaur-San Martin 13:10: Erribera-Ander D.	13:45	13:20	14:25	14:05
Etxean bazkaltzen dutenak	12:00			13:20	13:45
Mundaka (Txibitxaga DBH)		14:05	14:05	14:25	14:05
Bakio		14:25	14:25	14:25	14:05

2.- **URTARRILAREN 9a: eskola hasiera, ohiko ordutegiagaz, goiz eta arratsaldez.**

3.- **EKINTZAK**

- **Abenduaren 24an: HERRIA APAINTZEN. Larunbatean,** herriko kaleak apainduko ditugu ikasleek egindako gabon apaingarriekaz eta desioen zuhaitza atonduko dugu. Horretarako **11:30**ean liburutegi aurrean batu eta musikaz lagunduta, ibiliko gara apainketak egiten. Ekintza Lameran bertan amaituko dugu **13:00**etan.

ERDU ZEUOK BERE!

- **ABENDUAREN 24an: OLENTZERO. Olentzero kalera irtengo da** eta euskal jai horri behar duena emateko, gure partaidetza (*guk parte hartuta*) guztiz beharrezkoa da. Euskal ohitura zahar hau berpiztu eta indartu egin behar dugu eta era berean ohitura zabala bihurtu, hau da, ez talde batena, ez umeen gauza, herrikoia baizik.
 - **Ordua:** Batu: arratsaldeko 17:20an
Irteera: arratsaldeko 17:30ean
 - **Lekua:** Artike enparantza
 - **Ibilbidea:** Artike enparantza – Atalde – Arresi – Irakaskintza – Talaranzko bidea – Aurrekoetxea – Baztarre (dantzan) – Talakoetxea – Bidebarrieta – Arana Goiri tar Sabinen enparantza (dantzan) – Nardiz tar Jon – Arresi – Frantzisko deuna enparantza (dantzan) – Frantzisko deuna kalea – Lamerako kioskoa (dantzan)
 - **Amaiera:** 20:00etan Kasinoan. Argazkiak Kasinoan.

24an IKASTOLA OSOA OLENTZEROREN ATZETIK!

4.- AHOLKUA

Gabonetan OLENTZERO eta HIRU ERREGĒAK opariz beteta etortzen dira, umeen eta hain ume ez direnen poztasunerako, gure eskutitzei nola edo hala erantzunik. Eskutitza idazterakoan, haxe gomendatzen dizuegu:

Umeez eskatzen dituzten jostailuak ez daitezela **ez sexistak, ez biolentoak** izan. Merkatuan zenbat-gura jostailu eta joko daude sormena landu eta ondo pasatzeko aukera ematen dutenak, banaka edo beste batez gatzeko direnak.

Eskutitza idatzi aurretik, bada, egizue berba seme-alabekaz, opariak egokiak izan daitezzen.

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU !!

Euskaraz irakurriz, euskarari hegoak ematen
dizkiozu.

Euskaraz Bizi

Estimados padres/madres:

Ante las vacaciones de Navidad, os comunicamos que:

- **El viernes día 23 por la mañana** celebraremos la fiesta de Navidad en la Ikastola. Recordad que este evento es para los alumnos por lo que se os pide que no entréis al salón de actos. Enviad a los niños vestidos con los atuendos tradicionales
- Ese día todos los alumnos irán a casa después de comer.

El sábado 24 de diciembre, iremos a adornar las calles del pueblo con los trabajos que han realizado vuestros hij@s. Quedaremos a las 13:00 delante de la biblioteca. Habrá música y un ambiente extraordinario. ANIMAROS Y ACOMPAÑAD A VUESTROS HIJ@S EN ESTE EVENTO.

En Nochebuena, **24 de diciembre**, como todos los años, saldremos con el Olentzero y nos reuniremos en Artike Enparantza iniciando el recorrido a las 17:30.

Ausartu eta euskara hutsean
irakurri.!



Euskaraz Bizi